



# ITSASOTIK

GIDA DIDAKTIKOA





# ZER DA?

Marinel zahar batek kontatu zigun istorio hau...

...itsasoa maite zuen neska baten istorioa!

Eta hainbeste maite zuen, ezen behin itsasertzean lokartu eta, esnatu zenean, itsas zabalean zegoela konturatu zen! Marinel batzuek jasotzen dute, baina ekaitza bortitza hasi eta neskatoa uretara erori egiten da berriro ere. Arrain erraldoi baten sabelean sartuta, hondartza batera iristen da. Handik, hegazti batzuek hiri gris eta bizigabe batera daramate, eta bertan ezagutuko du izarrak konpontzen dituen mutila. Elkarrekin, hiriko biztanleen bihotzak aldatzen saiatuko dira.




Aizu, galdera sinple bat...

**Zuk zer egingo zenuke arrain handi batek irentsiko bazintu?**

- ☐ Bere izena zein den galdetu
- ☐ Kartetan jolastu
- ☐ Liburu bat irakurri
- ☐ Lo
- ☐ ...

Zer egingo ote du neskak?






# OBJEKTU BAT, MILA BIZITZA

Zenbat gauza egin daitezke objektu bakar batekin? Egin dezagun proba...

Har ezazu inguruan duzun edozer: erratz-makila bat ere izan daiteke!

Zenbat gauza egiteko erabili zenezake?





PEZ

VIRAZÓN

TERRAL

JARCÍAS

FOQUE

CORMORÁN

ALGAIDA

CANTIL

ABISAL

CARLOCA

CABRIOLA

# HITZEKIN JOLASEAN

Opera honetan narratzaileak, abeslariak eta dantzariak daude. Batzuetan, hitz bereziak erabiltzen dituzte istorioa kontatzeko. Bilatu erdarazko hitz hauen esanahia zein irudiak eta adi egon... emanaldian zehar entzungo dituzu eta!



# ITSASOKO BIZTANLEAK

Ba al zenekien itsasoan milioi erdi espezie baino gehiago bizi direla?

Tamalez, azken urteotan izaki arriskutsuak gehitzen ari dira itsasoko ekosistemetara...

Marrazo zuriak? Marmoka pozoitsuak? Krokodiloak? Itsas-sugeak?

## PLASTIKOAK!

Zer egin dezakegu plastikoak uretara iritsi ez daitezen?

Adibidez, hondartzara zoazen bakoitzean eskularruak jantzi eta bidean topatzen dituzun plastiko zein hondakin guztiak poltsa batean sar ditzakezu, edukiontzi egokira botatzeko.



# SORTZAILEAK

Nork egiten du opera bat? Abeslariak, teknikariak, antzokiko langileak, saltzaileak, entzuleak, zuzendariak, idazleak, musikariak, konpositoreak... Saiatu zenbatzen! Batzuk taula gainean aritzen dira, baina beste asko ez dituzu ikusiko.

Guk laguntza berezia izan dugu opera hau sortu ahal izateko: *Emaus* Gizarte Fundazioko lagunekin aritu gara eszenatokian ikusiko duzun *atrezzo* guztia eraikitzen.







# **ONGI ETORRI GURE ONTZIRA! BIDAIA HASTERA DOA!**

(ZUEN BIHOTZAK SOINEAN ERAMATEA GOMENDATZEN DIZUEGU)